

# BIZILAGUNAK GETXO

## PUENTES PARA EL ENCUENTRO

Es un programa dirigido a crear **oportunidades de encuentro e interacción entre vecinos y vecinas de Getxo que han nacido aquí, allá y acullá**, que celebran la diversidad cultural de su pueblo y que quieren conocerse, compartir momentos y construir puentes en su comunidad.

Bizilagunak tiene como finalidad **mejorar la convivencia, facilitar la participación, prevenir la discriminación y aprovechar el potencial de la diversidad**. Todo ello para promover un cambio en las percepciones, actitudes y conductas de la población.

Es una herramienta fundamental en el desarrollo de la estrategia antiRUMORES de Getxo para la prevención de la xenofobia y el racismo. Y también es una herramienta muy importante en los procesos de acogida de personas migradas, solicitantes de protección internacional o refugiadas.

Es el resultado del trabajo compartido entre el Ayuntamiento de Getxo, la Federación Plataforma Inmigrantes de Getxo y la asociación EGIZU para crear puentes entre las personas, y puentes entre la cultura vasca y la gran diversidad de culturas que portan quienes decidieron hacer de este pueblo su hogar en su proyecto migratorio.

www.getxo.eus/bizilagunak

getxobizilagunak@gmail.com

T.: 644 277 155

@getxokobizilagunak

Getxo Bizilagunak

## MENDIRA | AL MONTE

A comienzos del verano nos vamos al monte (¡no hay que ser profesional! Se trata de disfrutar). Nos acompañan guías especializados en grupos interculturales, así como cuentacuentos para relatar diferentes historias de la mitología vasca, cuentos y leyendas relacionadas con la montaña y la naturaleza de todo el mundo.



***Domingo 14 de julio***

*Excursión de día a SABIGAIN (URKIOLA)*

*Es imprescindible inscripción previa para poder organizar el autobús.*

*Horario de salida en bus:*
*09:00 en Plaza estación de Algorta*
*09:15 en Plaza estación de Las Arenas*
*Horario de llegada aproximado: 18:00*

*Actividad gratuita.*



## MUNDUKO TERRAZAK
## TERRAZAS DEL MUNDO

Un clásico en el marco del festival internacional GETXO FOLK. En la Plaza de Santa Eugenia se instala una carpa gigante en la que la Federación Plataforma Inmigrantes de Getxo ofrece un carta magnífica de gastronomía internacional, visibiliza las actividades de las diferentes asociaciones del ámbito intercultural y propicia un espacio de convivencia positiva entre personas autóctonas y migradas que se acercan a disfrutar de la música y actividad del festival.

***Del 5 al 8 de septiembre***

*Plaza de Santa Eugenia (Romo)*

*Para apuntarte como voluntario/a:*
*federacionplataformagetxo@gmail.com*



## MILA ZAPORE | MIL SABORES

Es un taller de gastronomía intercultural donde contaremos con un profesorado diverso (autóctono y foráneo) que nos enseñará a preparar diferentes recetas. Al terminar el taller cenaremos de manera conjunta lo que hemos cocinado entre todas las personas.

***Viernes 25 de octubre | 18:30***

*Es imprescindible inscripción previa para poder participar (aforo limitado).*

*A partir de 12 años. Personas menores de 16 años deben venir acompañadas.*

## LIBURUTEGIRA
## A LA BIBLIOTECA



Las bibliotecas son un magnífico lugar de encuentro, aprendizaje y conocimiento. Todos los años se celebra una fiesta en la que el espacio se transforma y acoge múltiples actividades entre sus salas, pasillo y estanterías. Es un momento muy esperado en la estrategia intercultural de las bibliotecas.

Para este año la propuesta novedosa se materializa en un evento que acerque a las personas a diversas tradiciones y creencias que podemos encontrar en distintas partes del mundo en relación con el "**Día de los muertos**" (Halloween, Día de los difuntos, Todos los Santos, Samhain, Pangangaluluwá, etc.).



La actividad será abierta a todo público y en la misma se podrá disfrutar de talleres, música, altar, cuentacuentos, gastronomía típica, charlas, "procesión", etc.

¡Anímate a participar!



BIBLIOTECA - LOC DE ÎNTÂLNIRE
SA SILID AKLATAN ANG TAGPUAN
LIBURUTEGIAK TOPALEKU
LAS BIBLIOTECAS UN LUGAR DE ENCUENTRO
LES BIBLIOTHÈQUES UN LIEU DE RENCONTRE
THE LIBRARIES A PLACE OF MEETING

***Sábado 2 de noviembre | Biblioteca de Villamonte (Metro Algorta)***

*Entrada libre (no es preciso inscripción) | 17:00-21:00*

INFORMACIÓN + INSCRIPCIONES:
**www.getxo.eus/bizilagunak**

## BAZKARIAK | COMIDAS

El mismo día y a la misma hora, cientos de hogares en todo Euskadi celebran una comida muy especial. Una familia autóctona y otra de origen migrante se sientan juntas para conocerse y celebrar la diversidad en torno a una mesa y una comida compartida. Tan simple como eso.

Cuando decimos familia lo decimos en un sentido amplio: que puede incluir a cualquier grupo como una pareja, amistades, familiares, cuadrilla, compañeras/os de piso, etc.).

En esta actividad potenciamos el encuentro y la convivencia desde la cercanía que da el poder compartir una comida en nuestro propio hogar, siendo invitad@s o recibiendo en nuestro hogar a otras personas de nuestro pueblo; personas con las que normalmente convivimos, pero con las que no tenemos ocasión de conocernos.

Además Bizilagunak necesita dinamizadores y dinamizadoras para que puedan facilitar el diálogo entre los grupos participantes.



***Domingo 17 de noviembre | 14:00***

*Apúntate como anfitriona / invitada /dinamizadora.*

*Las personas participantes en las COMIDAS BIZILAGUNAK podrán asistir, unos días después de las comidas, a una actividad de encuentro participativo, a la que llamamos EL POSTRE. Lugar a definir.*

¡¡ **Y para 2020 nuevas actividades**

I MARCHA REGULADA GETXOKO BIZILAGUNAK

BIZILAGUNAK BIZIKLETAN !!

# BIZILAGUNAK GETXO



**Bertakoak zein kanpokoak diren**

**Getxoko bizilagunen arteko**

**kulturarteko topaketak**



2019

Getxo bizi ezazu

egizu!

LAGUNTZAILEA

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

# BIZILAGUNAK GETXO

## ELKARTZEKO ZUBIAK

**Bertakoak zein kanpokoak diren Getxoko bizilagunen arteko topaketak eta interakzioak sortzea** helburu duen programa da; herritar horiek komunean izango dute euren herriaren kultura-aniztasuna ospatzea, elkar ezagutzeko gogoa, eta komunitatean uneak partekatzeko nahiz zubiak eraikitzeko nahia.

Bizilagunak egitasmoak honako helburu hauek ditu: **elkarbizitza hobetzea, parte-hartzea ahalbidetzea, diskriminazioa prebenitzea eta aniztasunaren indarra aprobetxatzea**. Hori guztia herritarren pertzepzioak, jarrerak eta portaerak aldarazteko.

Getxoko zurrumurruen aurkako estrategia garatzeko oinarrizko tresna da, xenofobia eta arrazakeria prebenitzeko xedea duena. Era berean, oso tresna garrantzitsua da migratzaileak, nazioarteko babes-eskatzaileak eta errefuxiatuak hartzeko prozesuetan.

Getxoko Udalaren, Getxoko Etorkinen Plataforma Federazioaren eta EGIZU elkartearen arteko elkarlanaren emaitza da, eta helburu nagusia pertsonen arteko zubiak eraikitzea da, are gehiago, euren migrazio-proiektuan herri hau euren etxe bihurtu nahi izan zutenek eskaintzen duten aniztasun handiaren eta euskal kulturaren arteko zubiak eraikitzea.


www.getxo.eus/bizilagunak

getxobizilagunak@gmail.com

T.: 644 277 155

@getxokobizilagunak

Getxo Bizilagunak


## MENDIRA

Uda hasieran mendira joango gara (ez zara profesionala izan behar, garrantzitsuena gozatzea da!). Kulturarteko taldeetan espezializatutako gidak etorriko dira gurekin, baita ipuin-kontalariak ere, euskal mitologiaren istorioak, nahiz mundu osoko mendiei eta naturari lotutako ipuinak eta kondairak kontatzeko.



***Uztailaren 14a, igandea***

*Egun-pasa SABIGAINERA (URKIOLA)*

*Ezinbestekoa da aurretiaz izena ematea, autobusa antolatzeko.*

*Autobusaren irteera-ordua:*
*09:00etan, Algortako geltoki plazan*
*09:15ean, Areetako geltoki plazan*
*Iritsiera-ordua, gutxi gorabehera: 18:00*

*Doako jarduera.*



## MUNDUKO TERRAZAK

GETXO FOLK nazioarteko jaialdiko jarduera klasikoa da. Santa Eugenia plazan karpa erraldoi bat jarriko da eta Getxoko Etorkinen Plataforma Federazioak nazioarteko gastronomiaren eskaintza zabala eskainiko du; horrez gain, kulturarteko esparruko hainbat elkartek egindako jarduerak emango ditu ezagutzera eta jaialdiko musikaz zein jarduerez gozatzera hurbiltzen diren bertakoen eta migratzaileen arteko elkarbizitza positiboa sustatzeko espazioa sortuko du.

***Irailaren 5etik 8ra***

*Santa Eugenia plaza (Romo)*

*Boluntario moduan izena eman nahi baduzu, idatzi helbide honetara:*
*federacionplataformagetxo@gmail.com*



## MILA ZAPORE

Kulturarteko gastronomia-tailerra da, eta hainbat irakasle (bertakoak zein kanpokoak) izango ditugu errezeta desberdinak irakasteko. Tailerra amaitutakoan, denon artean kozinatutakoa afalduko dugu.

***Urriaren 25a, ostirala | 18:30***

*Parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da aurretiaz izena ematea, leku-kopurua mugatua baita.*

*12 urtetik aurrera. 16 urtetik beherakoak heldu batekin etorri beharko dira.*

## LIBURUTEGIRA

Liburutegiak elkartzeko, ikasteko eta ezagutzeko toki zoragarria dira. Jai bat antolatzen da bertan urtero; bertan, espazioa eraldatzen da eta askotariko jarduerak egiten dira areto, korridore eta apalategi desberdinen artean. Liburutegien kulturarteko estrategiaren barruan irrikaz espero den jarduera da.

Proposamen berritzailea izango dugu aurten; izan ere, **Hildakoen Eguna**ren harira (Halloween, Arimen Eguna, Domu Santu, Samhain, Pangangaluluwà, etab.) munduko bazter desberdinetan aurkitu ditzakegun askotariko tradizioak eta sinesmenak jorratuko dira ekitaldian.

Jarduera irekia izango da. Adin guztietarako: tailerrak, musika, aldarea, ipuin kontalariak, gastronomia tipikoa, hitzaldiak, prozesioa, etab.

Animatu eta parte hartu!

LIBURUTEGIAK TOPALEKU
LAS BIBLIOTECAS UN LUGAR DE ENCUENTRO
LES BIBLIOTHÈQUES UN LIEU DE RENCONTRE
THE LIBRARIES A PLACE OF MEETING
BIBLIOTECA - LOC DE ÎNTÂLNIRE
SA SILID AKLATAN ANG TAGPUAN

***Azaroaren 2a, larunbata | Billamonteko liburutegia***
***(Algortako metroa)***

*Doako sarrera (ez da izena aurretik eman behar) | 17:00-21:00*

INFORMAZIOA + IZEN EMATEAK:
**www.getxo.eus/bizilagunak**

## BAZKARIAK

Egun eta ordu berean, Euskadiko ehunka etxek oso bazkari berezi bat egingo dute. Bertako familia bat eta jatorri migrantea duen familia bat batera jesarriko dira mahai baten inguruan elkar ezagutzeko, aniztasuna ospatzeko eta batera bazkaltzeko. Sinpleki esanda.

Familia diogunean bere zentzurik zabalenean interpretatzen dugu berba: edozein motatako taldez osatuta dagoena, alegia (bikotea, lagunak, senideak, kuadrilla, pisukideak, etab.).

Jarduera honen bitartez, elkarretaratzea eta elkarbizitza sustatu nahi ditugu, betiere gure etxean, gure herriko beste pertsona batzuk etxean hartuz nahiz gonbidatu bezala bazkari bat konpartitzean sortzen den gertutasuna oinarri hartuta; hala, elkarbizitzan gurekin egon ohi diren arren ezagutu ezin izan ditugun pertsonekin batuko gara.

Horrez gain, Bizilagunak egitasmoak dinamizatzaileak behar ditu parte hartuko duten taldeen arteko elkarrizketa ahalbidetzeko.



***Azaroaren 17a, igandea | 14:00***

*Gonbidatzaile/gonbidatu/dinamizatzaile moduan eman ezazu izena.*

*BIZILAGUNAK BAZKARIAK jardueran parte hartzen duten pertsonak, bazkariak egin eta egun batzuetara, topaketa parte-hartzaile batera joan ahalko dira, AZKENBURUKOA deritzoguna. Tokia zehazteke dago.*

**Eta 2020. urtean jarduera berriak antolatuko ditugu**

¡¡ GETXOKO BIZILAGUNAK ARAUTUTAKO I. MARTXA BIZILAGUNAK BIZIKLETAN !!

# BIZILAGUNAK GETXO

**Encuentros interculturales**
**entre vecinos y vecinas de Getxo**
**que han nacido aquí, allá y acullá**

2019

Getxo bizi ezazu

egizu!

COLABORA

EUSKO JAURLARITZA – GOBIERNO VASCO
ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA – DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES